JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO (1, guztira 1)
Secretario
Sinaduraren data: 17/10/2024
HASH: e076869bcef23318d46c5094c22bba9d

## IDAZKARITZAREN TXOSTENA

**Gaia: Ermuko Udal Euskaltegia Fundazio Publikoa erakunde autonomoa desegitea eta likidatzea.**

Txosten hau Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 172 eta 175 artikuluetan ezarritakoaren indarrez egin da

Aplikagarri den legeria

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu betegina onartzen duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

## INFORME DE SECRETARÍA

**Asunto: Disolución y liquidación del Organismo Autónomo Fundación Pública Euskaltegi municipal de Ermua.**

El presente informe se emite en virtud de lo establecido en los arts. 172 y 175 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Legislación aplicable

- Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 15

- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena.
- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena.
- Ermuko Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren estatutu arautzaileak.

- Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.
- Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.
- Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.
- Decreto de 17 de junio de 1955, por el que se aprueba el Reglamento de Servicios de las Corporaciones locales.
- Estatutos reguladores de la Fundación Pública Euskaltegi Municipal de Ermua.

Txostena

**Lehenengoa.-** Ermuko Udal Euskaltegia Udalaren menpeko erakundea da, 1981ean sortua, herritarrak euskaldundu eta alfabetatzeko. Euskaltegia, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko aginduan oinarrituta, eta, artean, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) eta Euskaltegien

Informe

**Primero.-** El Euskaltegi Municipal de Ermua es un organismo dependiente del Ayuntamiento, creado en 1981 para euskaldunizar y alfabetizar a la ciudadanía. El Euskaltegi, se creó en base a la orden del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, cuando todavía no estaba creado el Instituto de

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 15

Erregistroa gauzatu barik zeudela sortu zen. sortzea erabaki zuen, euskararen irakaskuntza zerbitzua kudeatzeko.

Geroago, 1983an HABE sortu zen, eta horren ostean 1984an Euskaltegien Erregistroa sortutakoan, Ermuko Udal Euskaltegia bertan onartuta eta inskribatuta geratu zen urte horretako abenduan

Toki-erakunde autonomoak, oro har, antolaketa instituzionalean sartuta daude, udalaren mendeko erakunde instrumental legez, baina nortasun juridiko propioa dute udal-eskumeneko zerbitzuak eta jarduerak modu deszentralizatuan emateko.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (aurrerantzean, TAOAL) 85.bis.1.a) artikuluak adierazten du, udal-zerbitzu publikoak toki-erakunde autonomoen bidez eman daitezkeela, eta Estatuko Administrazio Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 45-60 bitarteko artikuluetan, aplikagarriak zaizkien heinean, aurreikusitako berezitasunekin arautuko direla. Horrela, halakoak sortzea, aldatzea, bateratzea eta ezabatzea Udalbatzari dagokiola arautzen da, baina

Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos (HABE) y el Registro de Euskaltegis no se había llevado a cabo.

Posteriormente, en 1983 se creó HABE, y tras la creación del Registro de Euskaltegis en 1984, el Euskaltegi Municipal de Ermua quedó reconocido e inscrito en el mismo en diciembre de ese mismo año.

Los Organismos Autónomos Locales se incardinan, con carácter general, en la organización institucional como unos entes instrumentales dependientes del Ayuntamiento pero dotados de personalidad jurídica propia para la prestación de forma descentralizada de servicios y realización de actividades de competencia municipal.

El art. 85.bis.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local (en adelante, LRBRL), señala que los servicios públicos municipales se pueden prestar mediante Organismos Autónomos Locales y que se regirán por lo dispuesto en los arts. 45 a 60 de la Ley 6/1997, de 14 de abril, sobre Organización y Funcionamiento de la Administración General del Estado, en cuanto les resulte de aplicación, con las especialidades previstas en el mismo. De este modo se regula que su

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 15

ez da ezer esaten desegiteko eta likidatzeko prozedurari buruz.

creación, modificación, refundición y supresión corresponde al Pleno, pero no se dice nada respecto al procedimiento para su disolución y liquidación.

Hala ere, 6/97 Legea indargabetu egin du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak (aurrerantzean, SPAJL). Lege horren II. tituluko III. kapituluko Estatuko erakunde autonomoei buruzko artikuluak -zeinak oinarrizkoak ez diren eta Estatuko Administrazio Orokorrari soilik aplikatzen zaizkion (azken xedapenetako hamalaugarrena) – modu osagarrian aplikatuko dira. Zehazki, SPAJLk bere 96 artikuluan - 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak emandako idazketaren arabera- eta 97 artikuluan Estatuko Organismo Publikoen desegitea eta likidazioa eta azkentzea, hurrenez hurren, arautzen du.

No obstante, la Ley 6/997 ha sido derogada por la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (en adelante, LRJSP), cuyos artículos relativos a Organismos Autónomos Estatales del Capítulo III del Título II -que no poseen carácter básico y se aplican exclusivamente a la Administración General del Estado (disposición final decimocuarta)-, serán aplicables supletoriamente. Concretamente, la LRJSP regula en sus arts. 96 -en su redacción dada por la Ley 11/2020, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2021- y 97 la disolución y la liquidación y extinción de los Organismos Públicos Estatales, respectivamente.

TAOALen 22.2.f) eta 85.bis.2.a) artikuluen arabera, Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio zerbitzuak kudeatzeko moduak onestea, bai eta erakunde autonomoak sortzea, aldatzea edo ezabatzea ere.

Los arts. 22.2.f) y 85.bis.2.a) de la LRBRL determinan que corresponde al Pleno de la Corporación la aprobación de las formas de gestión de los servicios, así como la creación, modificación o supresión de los Organismos Autónomos.

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 15

**Bigarren**.- Aipatutako legeriak ez du arautzen erakunde horiek desegiteko eta likidatzeko prozedura. Gehiengoaren iritziz, erakunde horien estatutu arautzaileak erregelamendu-mailakoak direnez, TAOALen 49. artikuluak toki-ordenantzak onesteko ezartzen dituen baldintza berberak bete beharko dira, eta analogiaz, desegiteko, onesteko egin diren izapide berberak egin.

**Segundo**.- La legislación citada no regula el procedimiento para la disolución y liquidación de dichos organismos. La doctrina mayoritaria opina que, dado el carácter reglamentario de sus estatutos reguladores, su aprobación requiere los mismos requisitos que el art. 49 de la LRBRL exige para la aprobación de las Ordenanzas Locales. Y por analogía el acuerdo disolución requerirá los mismos trámites que su aprobación.

Halaber, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua (aurrerantzean TKZE) onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuak, 88.2 artikuluan ezartzen duenez, "erakundea desegitean, Korporazioa izango da haren oinordeko orokorra". Beraz, Ermuko Udalak haren eskubide eta betebehar guztiak subrogatuko ditu.

Asimismo, el art. 88.2 del Decreto de 17 de junio de 1955, por el que se aprueba el Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales (en adelante, RSCL) establece que "al disolverse la institución, la Corporación le sucederá universalmente". Por tanto, el Ayuntamiento de Ermua se subrogará en todos sus derechos y obligaciones.

Hori dela eta, Ermuko Udal Euskaltegia Fundazio Publikoa Erakunde Autonomoaren desegitea eta likidazioa eraginkorra izan daitezen, Udalaren aurrekontuan beharrezko kredituak jarri behar dira bere betebehar ekonomiko guztiak bere gain hartzeko, besteak beste:

Por ello, para que la disolución y liquidación del Organismo Autónomo Fundación Pública Euskaltegi municipal de Ermua sea efectiva deben dotarse los créditos necesarios en el presupuesto del Ayuntamiento que permitan asumir todas sus obligaciones económicas. Entre las más destacables pueden señalarse las siguientes:

a) Langileen arloan, Ermuko Udala

a) En materia de personal, el



Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 15

subrogatu egingo da laneko eta gizarte-segurantzako eskubide eta betebeharretan, bai eta erakunde autonomoak gizarte-babes osagarriaren arloan eskuratutako betebehar guztietan ere, eta bertako langileak udal honen plantillan sartuko dira.

Ayuntamiento de Ermua se subrogará en los derechos y obligaciones laborales y de seguridad social, así como en cuantas obligaciones en materia de protección social complementaria hubiera adquirido el Organismo Autónomo, integrándose su personal en la plantilla de esta entidad local.

Langile guztiak lan-kontratukoak direla kontuan hartuta, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan (aurrerantzean, EPOEL), lan-arloko legerian eta hitzarmenez aplikatzekoak diren gainerako arauetan, eta hala xedatzen duten aipatutako estatutuko aginduetan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Teniendo en cuenta que todo su personal tiene carácter laboral, le resultará de aplicación en los términos previstos en el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (en adelante, TREBEP), la legislación laboral y demás normas convencionalmente aplicables, así como los preceptos del mencionado Estatuto que así lo dispongan.

b) Kontratazioari dagokionez, Ermuko Udalak, erakunde autonomoaren kontratu-harreman juridikoetatik eratorritako eskubide eta betebeharren oinordeko unibertsala denez gero, etorkizuneko

b) En materia de contratación, el Ayuntamiento de Ermua, al suceder a título universal en los derechos y obligaciones derivadas de las relaciones jurídicas contractuales del

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 15

konpromisoei erantzuteko beharrezko diren aurrekontu-kredituak gaitu beharko ditu, indarrean dauden kontratu edo hitzarmenak azkentzeko legezko edo kontratuzko arrazoirik ez badago behintzat.

Organismo Autónomo deberá habilitar los créditos presupuestarios necesarios para atender los compromisos futuros de las mismas, salvo si concurriese causa legal o contractual de extinción de los contratos o convenios vigentes.

c) Kontabilitateari eta ondare-araubideari dagokienez, desegiteko erabakia hartu ondoren, erakunde autonomoaren kontabilitatea udalarenean sartuko da; horretarako, integrazioa 2025eko urtarrilaren 1ean egitea komeni da, desegitearen ondorio-data 2024ko abenduaren 31n ezarriz, udalaren eta erakunde autonomoaren kontabilitatea ixtearekin bateraalegia, eta kontsolidazioa, hortaz, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera.

c) En materia de contabilidad y régimen patrimonial, una vez adoptado el acuerdo de disolución, se integrará la contabilidad del Organismo Autónomo en la del Ayuntamiento; a estos efectos, es conveniente que la integración se haga con fecha 1 de enero de 2025, fijando como fecha de efectos de la disolución la de 31 de diciembre de 2024, coincidiendo así el cierre de la contabilidad del Ayuntamiento y la del Organismo Autónomo, y efectuando la consolidación con efectos a 1 de enero de 2025.

Komeni da, gainera, erakunde autonomoak, itxi aurretik, ordaintzeko dauden obligazio guztiak modu materialean ordaintzea eta, ahal den neurrian, kobratzeko dauden eskubide likidatuak ere kobratzea.

Es conveniente, además, que el Organismo Autónomo, antes del cierre, proceda al pago material de todas las obligaciones pendientes de pago y, en la medida de lo posible, a la cobranza de los derechos

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 15

liquidados pendientes de cobro.

2025eko urtarrilaren 1ean kontabilitateko kontsolidazioa egingo da, funtsean honako honetan gauzatuko dena:

- Iraungi egiten da udalak erakunde autonomoari egindako ondasun-atxikipena edo -lagapena, eta azkentze horren ondoriozko kontabilitate-idazpenak egingo dira.
- Erakunde autonomoak aktibo finkoak jabetzan baditu, aktibo horiek Udalari eskualdatuko zaizkio, eta amortizazio metatuarekin kontabilizatuko dira.
- Kontaketa-akta idatzi ondoren, erakunde autonomoaren finantza-erakundeetan eta kutxa-erakundeetan dauden kontu korronteetako saldoak udalari transferituko zaizkio, eta haren finantza-kontuak deuseztatu egingo dira.
- Erakunde autonomoak ordaindu gabe dituen obligazioak eta kobratzeko dituen eskubideak 2024ko abenduaren 31ko dataz likidatuko dira.

Con fecha 1 de enero de 2025 se producirá la consolidación contable que básicamente consiste en lo siguiente:

- Se extingue la adscripción o cesión de bienes que el Ayuntamiento hubiere realizado a favor del Organismo Autónomo, realizando los asientos contables consecuencia de dicha extinción.
- Si el Organismo Autónomo tuviera activos fijos en propiedad, éstos pasarán al Ayuntamiento, contabilizándose con su amortización acumulada.
- Previa redacción de la correspondiente acta de arqueo, los saldos en las cuentas corrientes existentes en las entidades financieras y de caja del Organismo Autónomo se transferirán al Ayuntamiento, cancelándose las cuentas financieras de aquél.
- Se procederá a la liquidación de las obligaciones pendientes de pago y los derechos pendientes de cobro del Organismo Autónomo a 31 de diciembre de

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 15

2024.

- 2024 abenduaren 31ko datan aurrekontukoak ez diren kontzeptuen saldo zordunak eta hartzekodunak Udalaren kontabilitatera pasatuko dira.

- Azkenik, Udalaren eta erakunde autonomoaren artean dauden kredituak eta zorrak, pertsona bera denez hartzekoduna eta zorduna, nahasmenduz azkenduko dira, dagozkien kontabilitate-idatzoharrak eginez.

- Se traspasarán los saldos deudores y acreedores de los conceptos no presupuestarios a 31 de diciembre de 2024 a la contabilidad del Ayuntamiento.

- Por último, los créditos y débitos existentes entre el Ayuntamiento y el Organismo Autónomo, se extinguirán por confusión, al coincidir en una misma persona la naturaleza de acreedor y deudor, con las anotaciones contables correspondientes.

**Hirugarren.-** Espedientea Osoko Bilkurako Gai Orokorretarako Informazio Batzordeak aztertu beharko du, hala ezartzen baitute, besteak beste, TAOALen 20.1.c) artikuluak eta Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 82, 123 eta 126 artikuluek (aurrerantzean, AJA).

**Tercero.-** El expediente deberá someterse a estudio por la Comisión Informativa de Asuntos Generales de Pleno, por así exigirlo, entre otros, el art. 20.1.c) de la LRBRL, así como los arts. 82, 123, 126, del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre (en adelante, ROF).

Ondoren, aipatutako Informazio Batzordeak espedientea osatu eta irizpena eman ondoren, Udalbatzari helarazi beharko zaio, eztabaidatu eta, hala badagokio, gehiengo soilez onar dezan.

A continuación, el expediente, completo y dictaminado por la Comisión Informativa indicada, deberá elevarse al Ayuntamiento Pleno para su debate y aprobación, si procede, por mayoría

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 15

Horri dagokionez, adierazi behar da Ermuko Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren Estatutuen 38.a) artikuluaren arabera, Zuzendaritza Batzordeak hartutako desegite-erabakia Osoko Bilkurak berretsi beharko du, kideen gehiengo osoz.

Hala ere, ohartarazi behar da TAOLren 47.1 artikuluak ezartzen du toki-korporazioen erabakiak, oro har, bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko direla.

Behin-behineko onarpen-erabakia hogeita hamar egun balioduneko epez gutxienez jarriko da jendaurrean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratutako iragarkien bidez, interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunak Udalbatzak ebatzi beharko ditu, eta, aldi berean, desegite- eta likidatze- erabakia behin betiko onartzea erabakiko du.

Hala ere, erreklamaziorik aurkezten ez bada, ez da beharrezkoa izango beste

simple.

A este respecto, hay que indicar que el art. 38.a) de los Estatutos de la Fundación Pública Euskaltegi municipal de Ermua indica que el acuerdo de disolución adoptado por la Junta Rectora deberá ser ratificado por el Pleno por mayoría absoluta de sus miembros.

No obstante, resulta necesario advertir que el art. 47.1 de la LRBRL establece que los acuerdos de las corporaciones locales se adoptarán, por regla general, por mayoría simple de los miembros presentes.

El acuerdo de aprobación provisional será expuesto al público por plazo mínimo de treinta días hábiles, mediante anuncios publicados en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de edictos del Ayuntamiento, para que las personas interesadas puedan formular las reclamaciones y/o sugerencias que estimen oportunas.

Las reclamaciones y sugerencias presentadas deberán ser resueltas por el Ayuntamiento Pleno, que acordará, al mismo tiempo, la aprobación definitiva del acuerdo de supresión.

No obstante, en el supuesto de que no se presenten reclamaciones, no será

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 15

erabakirik hartzea. Horretarako, Idazkariak hori egiaztatzen duen ziurtagiria egingo du, eta Alkateak ebazpena emango du, ordura arte behin-behinekoa izan den erabakia behin betiko bihurtuz.

Edonola ere, behin betiko erabakia, edo hasierako erabakia automatikoki kategoria horretara igoa, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratu beharko da.

Behin betiko onespen-erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari. Bi hilabeteko epea izango da horretarako, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, hala ezartzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. eta 112.3 artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. Artikuluetan. Nolanahi ere, interesdunek zuzenbidean egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

necesaria la adopción de nuevo acuerdo, extendiéndose a tales efectos certificación acreditativa de tal extremo por la Secretaría y por la Alcaldía se dictará Resolución elevando a definitivo el acuerdo hasta entonces provisional.

En todo caso, el acuerdo definitivo, o el inicial elevado automáticamente a tal categoría, habrá de ser publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de edictos del Ayuntamiento.

Contra el acuerdo de aprobación definitiva sólo podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de la publicación del texto íntegro en el Boletín Oficial de Bizkaia, de conformidad con lo establecido en los arts. 30 y 112.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y los arts. 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa; y ello sin perjuicio de que las personas interesadas puedan interponer cualquier otro recurso que en Derecho proceda y estimen oportuno.

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 15

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Ondorioz, Udalbatzari proposatzen zaion ondoko

**ERABAKIA**

**LEHENENGO.-** Ermuko Udal Euskaltegia Fundazio Publikoa izeneko Tokiko Erakunde Autonomoa desegitearen hasierako onespena, aurtengo abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin.

**BIGARREN.-** 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera euskara irakasteko zerbitzua emateari uztea eta zerbitzu horri atxikitako instalazioak Udalak bere gain hartzea.

**HIRUGARREN.-** Udal hau erakunde autonomo horren oinordekoa izango da, izaera unibertsalarekin, eta desegin ondoren geratu diren eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

**LAUGARREN.-** Abenduaren 31n kobratzeko dauden eskubideak eta ordaintzeko dauden obligazioak udalaren aurrekontuan sartuko dira.

En consecuencia, se propone al Pleno Municipal, la adopción del siguiente

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** La aprobación inicial de la disolución del Organismo Autónomo Local denominado Fundación Pública Euskaltegi municipal de Ermua, con efectos del 31 de diciembre del presente año.

**SEGUNDO.-** Dejar de prestar el servicio de enseñanza de euskara, así como asumir las instalaciones adscritas a dicho servicio, con fecha 1 de enero de 2025.

**TERCERO.-** Este Ayuntamiento sucederá a dicho organismo autónomo con carácter universal, subrogándose en todos los derechos y obligaciones que tras la disolución del mismo queden pendientes.

**CUARTO.-** Los derechos pendientes de cobro y las obligaciones pendientes de pago a 31 de diciembre se incorporarán al presupuesto municipal.

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 15

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**BOSTGARREN.-** Ermuko Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren izenean dauden banku-kontuak ixtea eta kitatzea.

**QUINTO.-** Proceder al cierre y cancelación de las cuentas bancarias a nombre de la Fundación Pública Euskaltegi Municipal de Ermua.

**SEIGARREN.-**2025eko urtarrilaren 1ean, erakunde autonomoko plantilla osoa udal-plantillan eta lanpostuen zerrendan sartuko da, eta haien lanbide-kategoria, ordainsari-mailak, antzinatasuna eta gainerako lan-baldintzak aintzat hartuko dira.

**SEXTO.-** Con fecha 1 de enero de 2025, la totalidad de la plantilla del Organismo Autónomo se integrará en la plantilla municipal y en la relación de puestos de trabajo, con reconocimiento de su categoría profesional, niveles retributivos, antigüedad y demás condiciones de trabajo.

**ZAZPIGARREN.-**2025eko urtarrilaren 1ean, Ermuko Udal Euskaltegia Fundazio Publikoari bere helburuak betetzeko eta zerbitzua behar bezala emateko atxiki zitzaizkion udal-ondasun guztiak udal-ondarera itzuliko dira, bai eta edozein titulu legitimoren bidez hark eskuratu dituen guztiak, eta desegitean izan ditzakeen baliabide eta eskubideak ere.

**SÉPTIMO.-** Con fecha 1 de enero de 2025, todos los bienes municipales que fueron adscritos a la Fundación Pública Euskaltegi Municipal de Ermua para el cumplimiento de sus fines y la correcta prestación del servicio, revertirán al patrimonio municipal, así como todos aquellos que haya adquirido por cualquier título legítimo, y los recursos y derechos de los que pueda disponer en el momento de su disolución.

**ZORTZIGARREN.-** Obra, zerbitzu, hornidura, hitzarmen eta desegite-egunean indarrean den beste edozein kontraturen ondoriozko eskubide eta betebehar guztiak

**OCTAVO.-** Asumir todos los derechos y obligaciones contractuales derivados de contratos de obras, servicios, suministros, convenios y cualquier otro

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 15

Udalak bere gain hartzea.

vigente en la fecha de disolución.

**BEDERATZIGARREN.-** Erabakia Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Toki Erakundeen Erregistroari jakinaraziko zaio.

**NOVENO.-** El acuerdo se comunicará al Registro de Entidades Locales del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno del Gobierno Vasco.

**HAMARGARREN.-** Zerbitzuari atxikitako giza baliabideak eta baliabide materialak transferitzeko beharrezko eragiketa material guztiak (zuzenean kudeatuko direnak) koordinatzeko Alkate-udalburuari ahalmena ematea, eta Bizkaiko Foru Ogasunean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean eta bidezkoak diren beste edozein erakundetan beharrezko kudeaketak egiteko ere bai.

**DÉCIMO.-** Facultar a la Sra. Alcaldesa-Presidenta para coordinar todas las operaciones materiales necesarias para la transferencia de los medios humanos y materiales adscritos al servicio, que se asume bajo gestión directa, y realizar las oportunas gestiones ante la Hacienda Foral de Bizkaia, el Instituto Nacional de la Seguridad Social y cualesquiera otros organismos en que éstas sean procedentes.

**HAMAIKAGARRENA.-** Alkate-udalburuari erabaki hau formalizatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko ahalmena ematea.

**UNDÉCIMO.-** Facultar a la Sra. Alcaldesa-Presidenta para la firma de cuantos documentos sean necesarios para formalizar el presente acuerdo.

**HAMABIGARRENA.-** Erabaki hau 30 egun baliodun eko epean jendaurrean erakustea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratutako iragarkien bidez, interesdunek

**DUODÉCIMO.-** Someter el presente acuerdo a información pública por plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios publicados en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de edictos del

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 15

erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkez ditzaten.

Ayuntamiento para que las personas interesadas puedan formular reclamaciones y/o sugerencias.

**HAMAIRUGARRENA.-** Aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunak Udalbatzak ebatziko ditu, erakunde autonomoa behin betiko desegitea erabakiz aldi berean.

**DECIMOTERCERO.-** Las reclamaciones y sugerencias presentadas serán resueltas por el Ayuntamiento Pleno, que acordará, al mismo tiempo, la disolución definitiva del Organismo Autónomo.

Nolanahi ere, erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ez da beharrezkoa izango beste erabakirik hartzea, eta, horretarako, Idazkaritzak hori egiaztatzen duen ziurtagiria egingo du. Alkate-udalburuak, bestalde, ebazpena emango du, ordura arte behin-behinekoa izan den erabakia behin betiko bihurtuz eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduz.

No obstante, y en el supuesto de que no se presenten reclamaciones ni sugerencias, no será necesaria la adopción de nuevo acuerdo, extendiéndose a tales efectos certificación acreditativa de tal extremo por la Secretaría. La Alcaldía-Presidencia, por su parte, dictará Resolución elevando a definitivo el acuerdo hasta entonces provisional y ordenando su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Hori da jakitera eman beharreko guztia, Zuzenbidean hobeto oinarritutako beste irizpide bat hargatik eragotzi gabe.

Es todo cuanto procede informar sin perjuicio de otro criterio mejor fundado en Derecho.

Ernuan

En Ermua.

Idazkaria / El Secretario

Baliozkotze Kod.: 74ZA3XZY62FCM3JWX3WMLLFDT
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 15